

**KULTUR GUNEAREN 8. BILERA****BERTARATUAK:**

KULTURA TEKNIKARIA	LESAKAKO ABESBATZA
ARRANO ELKARTEA	GILTZARRI ABESBATZA
IRAIN GURASO ELKARTEA	MUSIKA ESKOLA
OTXOGORRIENEA GURASO ELKARTEA	LESAKAKO MUSIKA BANDA
BORTZIRIETAKO BERTSO ESKOLA	TRIKITIXA TALDEA
MAIRU ANTZERKI TAILERRA	TXISTULARI TALDEA
SAN FERMIN JUBILATU ELKARTEA	ELUTXA TXARANGA
TANTIRUMAIRU EUSKAL FOLKLORE TALDEA	ERRALDOI ETA BURUHAUNDIEN KONPARTSA
LESAKAKO EUSKARA BATZORDEA	GEROA BAI UDAL TALDEA
BETI-GAZTE (KULTURA)	EH BILDU UDAL TALDEA
ARKUPE PELOTAZALE ELKARTEA	

1. Aitzineko aktaren onarpena egin da.
2. Urteko programazioa: Egutegia osatzen hasi gara. Urtero egiten diren ekitaldiak egutegian idatzi ditugu eta dagoeneko data zehaztua dutenak txertatu ditugu bertan. Gerora suertatuko direnak kultura teknikariari bidali beharko zaizkio. Bertzalde, bestak eta kirol ekitaldiak agenda apuntatuko diren arren, kolore ezberdinekin idaztea ikusi da, nolabait kulturatik ezberdintzeko.
3. Diru-laguntzen banaketa irizideak: Araudiaren zirriborroa egina da. Udalaren partetik ilbeltzaren 13ko kultura batzordean landu eta aste horretan egin beharreko azken kontuak egin ondotik herriko talde eragileei bidaliko zaie eskaera deialdiarekin batera.  
2020ko aurrekontuak onartuak daude. Ibanek, kultura aurrekontuetan egindako aldaketak azaldu ditu, bertzeak bertze, 2019an 29.000 euro izan zirela eta 2020rako 32.000 euro izanen direla. Kultura emanaldietarako 40.000euro onartu dira (30.000 Harriondoan eginen direnak antolatzeko eta bertze 10.000euroak bitan banatuak: a) 5.000 euro herriko eragileek Txokobikon antolatzen dituzten behar teknikoak

ordaintzeko izanen dira eta b) 5.000 euro uda partean, San Ferminen ondotik iraila bitarte karrikan eginen diren ekitaldi/zikloa antolatzeko.

4. Liburu xuria: Aurrekontuetan 2.000 euroko partida onartu zen liburu hau egin ahal izateko. Taldeen informazioa otsailaren 1erako prestatu behar dugu.
5. Kezkak eta beharrak: Sorginxulo Kultur Bilguneari logotipoa eginen diogu? Lehiaketa antolatzea proposatu da. Saria, urte bateko Harriondoan eginen dire kultur ekitaldiearako bonoa izanen da. Aurkezten diren lanekin, bilgunean bozketa eginez aukeratuko dugu aipatu irudia.  
Bertzalde, *Sorginxulo* edo *Sorgintxulo* idatzi beharko genukeen duda suertatu da.

Hurrengo bilera 2020ko otsailaren 1ean, goizeko 09:30ean eginen dugu Harriondoako Zumarra artoan eta bilerak ordu eta erdiko iraupena izanen du.